

65/2023 DEKRETUA, apirilaren 18koa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua. (Huts-zuzenketa, EHAA 107 ZK., 2023/06/07)

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 7. artikulua araberara, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzara atxikita dagoen Baliokidetzaren Jarraipen Batzordeari dagokio euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak eskuratzeko probak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailetara egokitzeko neurriak koordinatu eta gainbegiratzea eta titulu eta ziurtagiri ezberdinen baliozkotze-ikerketa egitea, egindako aldaketak eta egokitzapenak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren irizpideekin alderatzeko.

Aintzat harturik une honetan sortzen diren titulu eta ziurtagiri berriak Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren mailetara egokituta ematen direla, Baliokidetzaren Jarraipen Batzordeak erabaki du baliokidetzaren automatikoa aitortzea kalitate-maila bermatzen duten erakunde jakin batzuen titulu eta ziurtagiriei; erabaki du, halaber, titulu edo ziurtagiri berri bat baliokidetzaren den bakoitzean 297/2010 Dekretua aldatu behar izateak sortzen dituen arazoak ekiditeko, gomendatzea prozedura erraztua ezartzea gainerako erakundeek Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailen araberara izendatuta emandako titulu eta ziurtagirien aitortzarako eta, helburu bi horiek egikaritzeko 297/2010 Dekretua aldatzea proposatzea.

Horiek horrela, Lehen Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Hezkuntzako sailburuak, Osasuneko sailburuak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko apirilaren 18ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua aldatzea, honela:

Lehenengoa.– Zioen azalpenari bederatzigarren paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«Halaber, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sorrerak dinamika aldaketa esanguratsua ekarri du; horren aurretik, kasu batzuetan, izen bereko agiriak maila ezberdinak izendatzeko erabiltzen ziren erakunde igortzaile bakoitzaren irizpideen araberara, eta beharrezkoa egiten zen titulu eta ziurtagiriak sakonki aztertzea horien arteko baliokidetzak finkatu ahal izateko. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sorreraren eraginez, titulu eta ziurtagiriak Markoan ezarritako mailen arabera izendapenak hartzen joan dira; ondorioz, izendapenak adierazten duen maila benetan ziurtatzen den aztertzea da, gaur egun, Baliokidetzaren Jarraipen Batzordearen zeregina, eta ez titulu edo ziurtagiriak beste erakundeek emandako zeinen parekoa den. Hori horrela, Dekretuaren 3 bis 1 artikuluan arautzen da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailen arabera izendapena duten titulu eta ziurtagirien aitortza, eta 3. artikuluan zerrendatzen dira, beste izendapen batzuk edukirik, baliokidetuak».

Bigarrena.– 2. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen:

«2. artikulua. – Dekretu honen I. eranskinean jasotzen dira 1. koadroa (Erreferentzia-maila bateratuak: eskala orokorra), 2. koadroa (Erreferentzia-maila bateratuak: autoebaluazio-eskalak) eta 3. koadroa (Erreferentzia-maila bateratuak: ahozko hizkuntzaren alderdi kualitatiboak),

Europako Kontseiluak 2001ean onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuari dagozkionak.

I. eranskinak, oro har, dekretu honen 3., 3 bis eta 5. artikuluetan jasotako euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak lortzeko probekin lotutako ezagupenen eta alderdien deskribapena jasotzen du».

Hirugarrena.– 3. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen:

«3. artikulua.– Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiri hauek Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatzen dira:

1.– Titulu eta ziurtagiri hauek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 mailarekin egongo dira parekatuta, eta elkarren baliokideak izango dira:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 1. hizkuntza-eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan.

– HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak kudeatutako 1. mailako ziurtagiria, HABE atxikita dagoen Sailak emana.

– Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 1. hizkuntza-eskakizuna.

2.– Titulu eta ziurtagiri hauek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailarekin egongo dira parekatuta, eta elkarren baliokideak izango dira:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 2. hizkuntza-eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan.

– HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak kudeatutako 2. mailako ziurtagiria, HABE atxikita dagoen Sailak emana.

– Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 2. hizkuntza-eskakizuna.

– Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Ertzaintzako 1. hizkuntza-eskakizuna.

– Hezkuntzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleei aplikatzeko Irakaspostuen 1. hizkuntza-eskakizuna.

– EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal ikasketen 4.maila.

3.– Titulu eta ziurtagiri hauek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 mailarekin egongo dira parekatuta, eta elkarren baliokideak izango dira:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan.

– HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak kudeatutako 3. mailako

ziurtagiria, HABE atxikita dagoen Sailak emana.

– Osakidetzan euskara normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 3. hizkuntza-eskakizuna.

– Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.

– Hezkuntzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleei aplikatzeko Irakaspostuen 2. hizkuntza-eskakizuna.

– Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

– Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eta Nafarroako Gobernuak bere aginte-esparruan finkaturik dituen EGAREN baliokideak.

– Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emandako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

– Euskaltzaindiaren D agiria.

– Labayru Ikastegiko 3. mailako agiria, 1982ko irailaren 19a baino lehen emana.

– Jarraian zerrendatutako ikasketak maila honen balio aitortza dute baldin eta 2012ko apirilaren 16a baino lehen burututakoak badira edo, ondoren bukatuak izanik, ikasleak data horretarako matrikula egina bazuen:

– Euskal Filologiako lizentziatura.

– Euskal Filologiaren alorreko irakasle-diplomatura.

– Bizkaiko Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean.

– Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean.

– Donostiako OHoko Elizbarrutiko Irakasle Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean.

– Eskoriatzako OHoko Irakasle Unibertsitate Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean.

4.– Titulu eta ziurtagiri hauek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 mailarekin egongo dira parekatuta, eta elkarren baliokideak izango dira:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 4. hizkuntza-eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan.

– HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak kudeatutako 4. mailako ziurtagiria, HABE atxikita dagoen sailak emana.

– Osakidetzan euskara normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 4. hizkuntza-eskakizuna.

- Euskaltzaindiaren B agiria».

Laugarrena.– 3 bis artikulua gehitzen da, honela idatzita:

3 bis artikulua.– 1.– Jarraian zerrendatzen diren erakundeen titulu eta ziurtagiriak, Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailen arabera izendatuak, modu automatikoan baliokidetzen dira:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emanak.
- HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea atxikia duen sailak emanak.
- Nafarroako Gobernuak emanak.
- Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emanak.
- Hizkuntza eskola ofizialek emanak.

2.– Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak gainerako erakundeen tituluak eta ziurtagiriak aztertuko ditu, eta baliokidetasun-proposamena egingo du, hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez onartzeko.

3.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) eta HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak beren web-atarietan herritarren eta erakundeen eskura jarriko dute unean-unean, dekretu honetan ezarritakoari jarraikiz, aitortuta eta baliokidetuta dauden titulu eta ziurtagirien taula eguneratua».

Bosgarrena.– 6. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen:

«6. artikulua.– Dekretu honen 3., 3 bis eta 5. artikuluetan jasotako tituluak eta ziurtagiriak lortzeko probak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailara egokituko dira, eta, horretarako, dekretu honen I. eranskinean aipatutako gaitasunak hartuko dira kontuan.

Era berean, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri berriak sortzen badira, Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitu beharko dira».

Seigarrena.– 7. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen:

«7. artikulua.– 1.– Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak, hizkuntza politikan eskumena duen sailari atxikiak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak eskuratzeko probak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailara egokitzeko neurriak koordinatu eta gainbegiratuko ditu.

Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak etorkizunari begirako egokitzapenen jarraipena egingo du. Honetarako, titulu eta ziurtagiri ezberdinen baliozkotze-ikerketa egingo du, egindako aldaketak eta egokitzapenak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren irizpideekin alderatzeko.

2.– Euskararen jakite-mailak egiaztatzeko eskumena duten sailek, erakundeek edo entitateek osatuko dute Baliokidetzen Jarraipen Batzordea; nolana ere, honako hauek batzordeko kide izango dira:

- Presidente: Hizkuntza Politikarako sailburuordea, edo berak eskuordetzen duena.

– Funtzio Publikoaren gaietan eskumena duen sailaren ordezkari bat, sailburuorde maila duena, edo berak eskuordetzen duena.

– Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko (HABE) zuzendari nagusia, edo berak eskuordetzen duena.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) zuzendaria, edo berak eskuordetzen duena.

3.– Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak 3 bis 1 artikuluan jasotako gainerako erakundeen ordezkariak gonbidatu ahal izango ditu bere bileretan parte hartzera. Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak aurretiaz finkatuko ditu parte-hartze horien baldintzak eta irizpideak.

Atal honetan aipatutako erakundeen ordezkariak Baliokidetzen Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartuko dute, hitzarekin baina botorik gabe.

4.– Baliokidetzen Jarraipen Batzordea trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten pertsonak osatuko dute. Osaera horretan, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea bermatuko da.

5.– Hizkuntza Politikarako sailburuordeak norbait izendatuko du idazkari lana betetzeko, ez da Baliokidetzen Jarraipen Batzordeko kidea izango, eta ahotsa izango du baina botorik ez.

6.– Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak adituen laguntza eskatu eta jaso ahal izango du.

7.– Artikulu honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Baliokidetzen Jarraipen Batzordearen jardunean Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko atariko tituluko II. kapituluan ezarritakoari eutsiko zaio».

Zazpigarrena.– Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak indargabetzen dira.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituen.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 18an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lehen Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

Osasuneko sailburua,

MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
NEREA MELGOSA VEGA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.